

kotan nintzen, baina, ez dakit, harra bizirik daukat barruan. Ez daukat lau urtean asto bat bezala lan egiteko asmorik eta horregatik nengoen beldurtuta. Baina, Paul Lagrangeekin (Konporta kirol elkarteko lehendakaria) eta nire entrenatzailearekin bilera bat izan dut eta plan eramangarri bat prestatu dugu. Uste dugu plan hori jarraituz gero, 2012an Londresen podiumean egon gaitezkeela.

**Baina paralinpiar jokoetatik aparte bada bizitzarik. Zein erronka dituzu epe laburrera?**

Oraindik ez da onartu lehiaketan egutegi ofiziala baina, uste dut 2009 urtean Europako txapelketa jokatu dela. Gainera, segur aski datorren abuztuan Rio de Janeiron igerileku laburreko munduko lehendabiziko txapelketa izango da, 25 metroko igerilekuan. Horiek dira nire hurrengo erronkak. Baina ez ditut paralinpiar jokoak bezain gogor hartuko.

**Hitz egin dezagun zure urritasunaz.**

Nik burmuineko paralisia daukat. Kasu gehienetan bezala, niri ere jaiotzatik datorkit. Normalean, zilbor-hestearekin itomena



Argazkiak: IKOR KOTX

gertatzen delako edo biriketan likidua pilatzen delako gertatzen da. Kasu batean zein bestean, garuna oxigenorik gabe gertatzen da une batez eta, ondorioz, zelula batzuk hil egiten dira. Burmuineko lesioaren mailaren arabera, ondorioak txikiagoak edo larriagoak izan daitezke. Nire kasuan, mugitze-ko arazoak ditut, koordinazio arazoak eta, gainera, entzumen sistema ere kaltetuta daukat. Duela hiru urte Gipuzkoako Poliklinikan ebakuntza egin zidan Algaba medikuaren taldeak eta niretzat mundu berri bat zabaldu zen, soinuz betetako mundu bat. Informazio bide berri honek aurrerantzean ere ikasten jarraitzen lagunduko didala uste dut. Ikasten jarraitzeko ilusio izugarria daukat.

**Hain justu igerian terapia modura hasi zinen.**

Hala da. Umetan nire gurasoek alde batetik bestera eramaten ninduten mesede egingo zidan edozer gauza topatu nahian. Besteren artean, igeriketan hasi nintzen igerilekuan, terapia eta errehabilitazioa egiteko. Udan, itsasoan ibiltzen nintzen gurasoekin eta orduan konturatu ginen uretan primeran molda-

tzen nintzela. Uretan nengoenan, nire eta urritasunik ez zuten pertsonen artean ez zegoen hainbeste desberdintasunik. Gero eta gehiago gustatu zitzaidan eta orain erabat engantxatuta nago. Eroso sentitzen naiz. Uretan etzanda lehorrean zutik baino askoz oreka hobea lortzen dut. Uretan nire besoekin lehorrean hankekin baino askoz azkarrago eta hobeto mugitzen naiz. Izugarri gustura sentitzen naiz uretan.

**Aitarek tailerrean lan egiten duzu. Zaila al da kirolarekin bizimodua ateratzea?**

Azken denboraldi honetan Paralinpiar Batzorde Espainolak emandako laguntza batzuek baliatu naiz eta, horri esker, entrenamenduetan jo eta su aritu naiz. Baina, aurretik, ahal dudan neurrian lagundu dut etxean. Orain informatikaren munduan lan bat topatzea gustatuko litzaidake. Izan ere, izugarri gus-tatzen zait mundu hori eta eroso sentitzen naiz. Izugarri gustatuko litzaidake lan munduan sartzea. Onena, nire entrenamenduekin jarraitzeko modua eskaintzen didan lan bat topatzea izango litzateke. Ea lortzen dudan.

## Egun batean gure bizitzek topo egin zuten

**E**gun batean Richarden bizitzak eta nireak topo egin zuten, eta zorteko sentitzen naiz. Berarekin, bere entrenatzailearen zen Iñaki Pagolarekin eta bere gurasoekin hitz egin nuenean beldurtu egin nintzela aitortu beharra daukat. Ezezaguna denak beldurra sortzen du. Eta urritasunen mundua ezagutzen ez duenak ez dauka oso garbi zer den burmuineko paralisia, zein ezaugarri dituen... Niretzat sekulako erronka izan zen Richard Oribek urritasunik ez duten igerilariak bezala entrenatzeko zeukan nahia nire gain hartzea. Eta lanean hasi nintzen. Gai horri buruz zerbait jakin zezakeela uste nuen

nari galdetu nion, eta oso jende gutxik zekiela ezer ikusi nuen. Idatzitako informazioa topatzen saiatu nintzen, eta apenas zegoela konturatu nintzen. Hartara, batak bestearekin ikasi behar izan dugu.

Egunero ordu asko ematen ditugu elkarrekin eta kontzentrazioetan eta lehiaketetan egunak ematen ditugu batak bestearekin. Konplizitate handia daukagu. Izugarri maite dut, kirolari handia eta pertsona handiagoa delako. Gizon ona eta maitekorra da. Sentiberatasun izugarria dauka eta besteei laguntzeko gogo bizia. Beijingetik bueltan tratua egin genuen. Pixka batean entrenamenduak ahaz-

tu eta igerilekuko kloroaz desintoxikatu behar zuela hitzartu genuen. Hala ere, bera oso maiz etortzen da igerilekura, taldekide eta lagun dituen Iñaki Erauskini eta Iñaki Irastorzarri laguntzera.

Richard bizitzak oparitzen dizkion uneek gozatzen dakien pertsona bat da. Familia oso garrantzitsua da beretzat eta ingurukoekin afari xume bat egitea nahikoa du zoriontsu izateko. Oso taldekoa ere bada, eta txapelketetan asko gozatzen du. Eskuzabala eta pertsona ona da. Nik beti esaten dut Richardek garunean deuseztatua duen parte gainontzekoak daukagun gaiztakeriaren parte dela. •

**Javier de Aymerich**